



EIBAR'KO ZAINDARIA

**SORTZEZ GARBIA ZERA-TA
AMENTXE GATÓZ KANTARI
AINTZAK ETA AINTZAK ZURI
ARRATE'KO ANDRA MARI.**

Eibar sortu baño lena
Arrate-goian zifian Zu;
sortu zanatik or zaitu
Eibar'ek bere Zaindari,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Euskaldunok oraindikan
artzai garaia genduan;
artzaitxo bati orduan
or zintzazkion ageri,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Artzaitxo bari ageri
mendiko lora polita,
Erregiñ bat lez jarrita,
begientzat zoragarri,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Arrate'ko pagadiak
orain eta len garbiak...
or zintzazkigun agertu

biotzentzat maitagarri,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

«Maitagarriak» basoan
artzaien peril osoan...
Zu agertzean, azkarrik
danok emon igesari,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Artzaiak mendi goietan,
nekazariak soloan...
ta Zuk guztiok gogoan,
Zu guztion maitalari,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Gerostikan garbiagoak
Arrate-mendi-basoak;
lengo illunak kenduta
zeru argiz dizdizari,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Burdin-lanaren gordiña
Eibar'ko ola zarretan!
Oletako beargiña

zure aintzaren kantari,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Eibar'ko patu ta lorra
gerratean su gogorra...
Bañan su ta gar-arteon
Zu zeruan dizdizari,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Antziñatikan Eibar'ek
Anaitasun bat ezarri,
inguruetan lenengo
Zure Sortzez Garbiari,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Zure «Sorrera Garbia»
neguaren biotzean;
Bañan orri-erortzean
Bulda batek opa guri,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Ez da Eibar'en umerik
txiki-txikia dalarik
amatxuren besoetan

eskiñi gaberik Zuri,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Guztiok maite zaituguz,
gure Amatxu laztana
ustean Zugan dankogu,
beti oyuz gagoz Zuri,
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Zuk ondo zaindu gaituzuz
arraixku andienetan;
olan gagoz gaur benetan
AINTZAK ETA AINTZAK ZURI
ARRATE'KO ANDRA MARI.

Zaindu gagizuz, ba, beti,
orain arte lez aurrera,
gagozan beti kantari
AINTZAK ETA AINTZAK ZURI
ARRATE'KO ANDRA MARI.

**SORTZEZ GARBIA ZERA-TA
AMENTXE GATÓZ KANTARI
AINTZAK ETA AINTZAK ZURI
ARRATE'KO ANDRA MARI.**

Ÿ. *In conceptione tua, Virgo Maria, immaculata fuisti.*

Ÿ. *Ora pro nobis Patrem, cuius Filium peperisti.*

OREMUS: Deus, qui per immaculatam Virginis conceptionem dignum Filio tuo habitaculum praeparasti; quaesumus, ut qui ex morte eiusdem Filii tui praevisti eam ab omni labe praeservasti, nos quoque mundos eius intercessione ad te pervenire concedas. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

Danak *cresc.*

mf Sor-tzez gar-bi-a ze-ra-ta, a-men-txe ga-toz kanta-ri, Ain-tzak e-ta Ain-tzak zu-ri A-rra-te'ko An-
rit. dra Ma-ri. *Batzuek* *p* Ei-bar sor-tu ba-ño le-na A-rra-te goian zi-ñan Zu; sor-tu za-ne-tik
rit. or zai-tu Ei-bar'ek be-re Za-in-da-ri. A-rra-te'ko An-dra Ma-ri. *rit.*

Donosti'ko Obispo Jaunak goramen auek biotzez otol edo abesten dituzten guzleri, 100 eguneko barkamena ematen die.

Lekuna Manuel Apaiz Jauna'ren
itzak.

1959
(bear diran baimenekin)

Almandoz Norberto Apaiz Jauna'ren
eresia.

Danak *cresc.*

mf Sor-tzez gar-bi-a ze-ra-ta, a-men-txe ga-toz kan-ta-ri, Ain-tzak e-fa Ain-

ff *rit.*

tzak zu-ri A-rra-te-'ko An-dra Ma-ri.

Poco meno con sentimento

Batzuek

p Ei-bar sor-tu ba-ño le-na A-rra-te goian zi-ñan Zu; sor-tu za-ne-tik or zai-tu Ei-

rit. *ff* *rit.*

bar-'ek be-re Za-in-da-ri. A-rra-te-'ko An-dra Ma-ri.